


Proposamen politikoa euskal gatazkaren irtenbideari ekiteko



Eusko Legebiltzarrean Lehendakariak Política

Orokorrari buruzko eztabaida ekitaldian

egindako hitzaldiaren laburpena

2007 ireailaren 28a

Proposamen politikoa euskal gatazkaren irtenbideari ekiteko

- 1.- Euskal gatazka konpontzea galarazten digun “zurrunbiloa” eten beharra dago.
- 2.- Estatutu Politiko berria, Eusko Legebiltzarrak 2004ko abenduaren 30ean onartutakoa, indarrean dagoen proposamena, konponbiderako tresna modernoa eta berritzailea.
- 3.- Bakea lortzeko eta euskal gatazka politikoaren irtenbideari ekiteko ibilbidea. Pausuak eta ondorioak.

Eranskina: Eskema esplikatiboa

Euskal gatazkaren irtenbideari ekiteko apustu sendoa

1.- Euskal gatazka konpontzea galarazten digun “zurrunbiloa” eten beharra dago

Ez dugu asmatzen euskal gatazka nola konpondu –gure artekoa eta Espainiarekikoa- “zurrunbilan gaudelako”, “zurrunbilan sartuta hausnartzen dugulako” eta “zurrunbilan sartuta pentsatzen dugulako”.

Denok hartzen gaituen zurrunbilo hori geldiarazten asmatzen ez dugun bitartean, ez dugu irtenbiderik aurkituko; nekatu egingo gara, frustratu, behin eta berriro.

Zenbaitek ukatu egin nahi du begien bistan dagoen hori –“ez dago inolako gatazkarik” diote- eta horrek iraunarazi egiten du egoera. Gatazka politikoa badagoela ezin da ukatu, begi-bistakoa delako; gatazka politikoa bera ez da, berez, inportantea –gatazkan egotea ohiko egoera naturala baita gizarte demokratikoetan-; gatazka hori nola bideratu behar den, horixe da benetan inportantea, azpimarratu eta nabarmendu beharrekoa.

Bat ez etortzea, ados ez egotea... hori ez da txarra; ezta jarrera guztiz kontrakoak edo aurrez aurrekoak izanda ere; horregatik inor hiltzea, horixe da benetan ikaragarria. Hortxe ditugu eskoziarrak; modu baketsuan eta demokratikoan bideratu nahi dute gatazka politikoa, -nola, bestela, geldiarazi, behin eta berriz, beti leku berberera garamatzen gorpil hori?-, eta autodeterminazioaz erabakitzeke erreferenduma ari dira planteatzen oso modu serioan, XXI. mendean Erresuma Batuekin dituzten harremanak berriz beste esparru batean ezartzeko.

Euskal gatazka bideratzea -ez, ebatzea- gorpil erromantiko horien zurrunbilotik ateratzea da, eta buruz eta zentzuz “norgehiagoka demokratiko osasuntsu” horretan nabigatzea da. Ez da arazo juridikoa, beraz. Borondate politikoa da arazoa. “Norgehiagoka demokratiko osasuntsu” hori bideratzerakoan, “konstituzionaltasun baliagarri” horretan defendatzen diren printzipioak erabil daitezke, horien arabera, Euskal Herriari dagozkion eskubide historikoak Konstituzioa bera baino lehenagokoak baitira, eta, beraz, oso tresna erabilgarria baita Euskal Herriaren erabaki-eskubidea interpretatzeko, eta eskubide hori modu itunduan baliatzeko.

Edo, nahiago baduzue, “norgehiagoka demokratiko osasuntsu” hori onartzea eta horretan buruz eta zentzuz nabigatzea, horixe da gatazka politikoa erantzuna ematea; Espainiako Legebiltzarrean Estatutu Politiko Berria aurkezterakoan esandako bi esaldi hauek dira egoeraren adierazgarri. Bata, Espainiako presidente Zapatero jaunak esandakoa: “elkarrekin bizi bagara, eta elkarrekin erabaki behar dugu”, eta nik, lehendakari nintzen aldetik, eman nion erantzuna: “elkarrekin bizitzea erabaki ahal izan behar dugu”.

Aitortzen dut, beraz, “zurrunbilan dabilen eztabaida” gainditzeko eta euskal gatazkaren konponbidea bideratzeko gaur hemen egin ditudan proposamen hauetan, arazo politikoa konpontzeari ekiteko proposamen politiko eta demokratikoak planteatzen direla.

Hitzak balio handia du niretzat, eta horrexegatik egin behar dut. Emandako hitza bete behar da. Nik hitza eman nizuen eta hitza beteko dut.

Bizitza honetan gauza handia da “hitzekoa izatea”, “konfiantza” sortu nahi baduzu behintzat. Udazkeneko orbelaren antzera, haizeak daramatzen hitz hutsekin neka-neka eginda dago gizartea.

ETAk bere hitza jan du bi aldiz jarraian: 1999 / 2007

Hitza “lehertarazi” du, eta, horrekin batera, euskal gizarteak kasu batean eta bestean bake-prozesu bietan jarri zuen konfiantza ere zartarazi du.

Belaunaldi honetarako, behintzat, indarkeria bukatu egingo zela-eta emandako hitza non geratu da? Non geratu da Anoetako Adierazpena?

Bakea ekarriko dugu eta gatazka politikoa konpontzea lortuko dugu; baina ez da izango ETAk hala erabaki duelako, ez; geuk hala erabakita izango da, euskal gizarteak halaxe erabakita.

Ez ditugu geure buruak engainatu behar; euskal gatazka konpontzea geure esku dagoen erantzukizuna da. Konponbidea ETAREN borondatearen mendean uzten badugu besterik gabe, gureak egin du. Euskal gizartea izango da, eta ez ETA, bakea eta normalizazio politikoa ekarri behar dituen.

Estatu espainiarrak ere jan egin du Euskal herriari eman zion hitza

Gernikako Estatutua bete gabe utzi du nahita Espainiako Gobernuak. Estatutua gaur egun oso triskatuta dago. Atal bati buruz diote “ez dela konstituzionala” eta beraz ezin dela transferitu. Beste atal bat, Euskal Herriari dagozkion eskubide historikoak errespetatu behar direla adieraztekoa, ez du ezertarako aintzat hartzen.

Gaur egun Espainiako Estatua, Erresuma Batuan Eskoziarekin gertatzen denaz oso bestela, ez da nazio asko biltzen dituen estatua, nazio bakarra baizik; halaxe uste du, ez PPK bakarrik, baita PSOEk ere.

Azken 28 urteotan izan dugu, bai, PPren eta PSOEn gezur handi hori argi ikusteko aukera; duela gutxi ikusi dugu-eta berriz ere gorputza hartuta, Eusko Legebiltzarrak gehiengo osoz onartutako Estatutu Politiko Berriari –ezta negoziatu ere egin gabe- EZETZA eman ziotenean. Argi ikusi dugu gezur hori, Kataluniako Estatutua leuntzearen, “Madrilgo arrabota” pasatu dutenean. Eta, are gehiago; argi ikusi dugu PSOEk Nafarroan zein ongi errespetatu duen PSN bere frankiziak hartu zuen “erabaki autonomia”.

Bada, argi eta garbi esan behar dugu. Euskadik sina dezake Estatu espainiarrarekin batera bizitzeko ituna, baldin eta Espainiak nazio aniztuna dela aitortzen badu; baina Espainiako Estatuak kulturaren, politikan eta lege-aldetik ez baditu onartzen eta aitortzen bere baitan bizi diren nazioak –Euskadi horietako bat izanda-, orduan, ez; ez dago itunik.

Hau da, hau, egoera! Ondo bizi gara, seguru aski, inoiz baino hobeto, gure ahaleginez, inork ezer eman gabe, lan ederra eginda! Baina, bakea eta errespetu politiko eta juridikoa falta zaizkigu, garena garelako halaxe dagokigulako guri; zergatik? Europako herririk zaharretakoa garelako.

Bai, gure Herria sufritzeaz nekatuta dago; eta, era berean, neka-neka eginda dago, begirunea galtzen digutelako.

Euskal gizartea asper-asper eginda dago, ETA dela, bere bortizkeria bidegabea dela, bere estortsio eta kalte koldarra dela...; eta, era berean, politikatik eta politikoengandik ere urruti dago, ez garelako euskal gatazkari konponbideak emateko gai. Konponbideak, esan nahi dut, eguneroko arazoez gaineratik; arlo horretan, bestela, euskal administrazioak, enpresaburuak eta langileak, gizartea oro har, oso ondo ari baita erantzuten, eraginkortasunez. Ongizatea eta garapena lortu ditugu. Gure Herriko pertsianak zabaltzen eta ixten dira egunero, eta bikain ari gara horretan, nire hitzaldiaren lehen zatian ikusi dugun moduan. Bakoitzari berea, hori da legea; eta horretaz ari naiz, euskal gizarteari dagokiona eman behar zaiolako: Bakea eta Hitza, alegia.

Ekimen politikoari gogor eta gogoz eustea, horixe da nire erantzukizuna. Ekimen politikoa izan behar dugu, euskal gizarteak giza garapen iraunkorrean aurrera egin dezan egunetik egunera. Ekimen politikoa izan behar dugu, era berean, euskal gatazka politikoaren irtenbidea astindu eta bideratzeko, beti helburua argi eta garbi izanda. Euskal Herriari berea eman behar zaio: Bakea eta Hitza, erabakitzeke gaitasuna.

Dakigunez, une honetan ETAk hautsia du su-etena; eta, beraz, Espainiako Gobernuarekin zituen negoziazioak ere bai. Une honetan, beraz, arazoak daude, bai akordio batera iristeko, eta, are gehiago, baita alderdien artean elkarrizketa politikoa bideratzeko ere. Hain zuzen ere, horrexegatik, elkarrizketarik ere ez dagoelako. Orduan, Herri honetako erakunde demokratikook, Lehendakaria aurretik doala, gure erantzukizuna bete eta “politika egin behar dugu”.

Nik ezin diot gizarteari esan ez dagoela konponbiderik, edo konponbidea topatzeko gai ez garela. Ezin diot gizarteari esan, ETAk su-etena hautsi ondoren, geratzen zaigun konponbide bakarra alderdien arteko elkarrizketa kriminalizatzea dela, eta modu judizialean horren aurka egitea. Ezin dut onartu ekimen politikorik ezin dela aurkeztu, harik eta, ez dakit zer-nolako menia edo su-eten mota aldarrikatuta, ETAk horretarako baimena ematen digun arte.

Ordura arte, beraz, horren arabera, ezertxo ere ez; den-denok geldirik, beso bat bestearen gainean; ETako zuzendaritzak gure agendak kudeatzen dituela onartuta.

Ez eta ez; eta mila aldiz esango dut ezetz.

Bide horretatik joatea onartuko banu, oraintxe puntuan utziko nioke Herri honetako lehendakari izateari.

Argi eta garbi hitz egingo dut. Horixe bera eskatzen digu-eta Herri honetako jendeak.

Herri honekin 2001ean eta 2005ean hartu nuen konpromisoa beteko dut, eta, horretarako, erabat demokratikoa eta gardena izango den prozedura batean, ibilbide-orria planteatuko dut, ondorio politiko konkretuekin.

2.- Estatutu Politiko berria, Eusko Legebiltzarrak 2004ko abenduaren 30ean onartutakoa, indarrean dagoen proposamena, konponbiderako tresna modernoa eta berritzailea.

Estatutu Politikoa Legebiltzar honena da eta bere eskuetan dago, berak onartu baitzuen gehiengo osoz, eta euskal gizartearen ondarea da beraz.

Nire asmoa ez da, beraz, berriz ere aurkeztea, Estatutua onartu edo tramitatu dezaten; hori, azken batean, Estatutuari maila politikoan balioa kentzea izango litzatekeelako.

Espainiako Kongresuak “ezetz” esan zuen, negoziazioa hasi ere egin gabe, baina horrek argiago erakusten digu horren atzean arazo politikoa dagoela, denon artean konpondu beharrekoa. Eusko Legebiltzarrak ezin dio bere erabakia inposatu Espainiako Legebiltzarrari, baina, era berean, Espainiako Legebiltzarrak ere ezin dio inposatu berea Eusko Legebiltzarrari.

Estatutu Politikoa eskuarte eta aktibo instituzionala da, bera baita gehiengo osoz aurkeztu eta onartu den bakarra, 1979an Gernikako Estatutua onartu genuenetik. Datu hori nabarmenagoa da, gainera, kontuan hartzen badugu gaur egungo euskal gizartearen % 49,3k ezin izan zuela, adina dela-eta, Estatutua onartzeko hauteskunderetan parte hartu, duela 28 urte.

Estatutu Politiko berriak, beraz, oso garrantzi politiko eta instituzional handia du tresna juridiko-politiko modura, “denbora-zedarria” baita batetik, eta “mugarri demokratikoa” bestetik, etorkizunean egin daitezkeen proposamenak aztertzeko eta balioesteko orduan, bai ikuspegi kualitatiboan -eduki politiko eta juridikoari begira-, bai eta, aldekoen boto-kopuruari begiratuta, ikuspegi kuantitatiboan -39 legebiltzarkide izan zituen alde-.

Legebiltzar honen gehiengo osoz onartu zen Estatutu Politiko berria, eta Legebiltzar honetan dago eskuragarri eta erabilgarri, berea baita, azken batean; eta indarrean egongo da, bai politikoki bai juridikoki, harik eta beste proposamenen bat aurkeztu, eta, hark baino boto gehiago jasota (39 baino gehiago, beraz), demokratikoki hura ordeztu arte.

3.- Bakea lortzeko eta euskal gatazka politikoaren irtenbideari ekiteko ibilbidea. Pausuak eta ondorioak.

Euskal gizarteak ez du ikusle huts izan nahi, bere iritzia eman nahi du, parte hartu. Konpondu.net webgunean sartu direnak, milioitik gora, edo abian diren parte hartzeko foroak, 50etik gora, horiek ditugu gizartearen nahiaren erakusgarriarik onena. Horixe da egingo duguna, tresna demokratiko gisa, gizarteak parte hartzeko sareak sustatzen jarraitu. Euskal gizarteak asmo sendoa du “zurrumbilao” eteteko, “gurpil zoro” horretatik irteteko.

Nik, neure erantzukizuna eta euskal gizartearekin dudan konpromisoa asumitu behar dut.

Irtenbiderako bide berriak aurkitzeko giltza utzi nahi dut gizartearen eskuetan.

Emandako hitza bete nahi dut, eta “zurrumbilotik irteteko”, “gurpil zoroa” hausteko bidai orria proposatuko dut. Konpromiso jakin bat eta data esanguratsu bat dituen bidai orria, egun horren aurreko garaia eta ondorengoa bereiziko dituen. **2008ko urriaren 25ean** euskal gizarteari hitza emango zaio demokratikoki erabaki dezan. Irtenbiderako giltza izango da gizartearen hitza.

Gizarteak aukera izango du hautesontzietan bietako bat egiteko: edo Estatuarekin alde zuzenetik lortutako akordioa berresteko, horretarako bideratuko den eta balio juridikoa izango duen “berreste-kontsulta”ren bidez, edo, elkarrizketa eta negoziazio prozesu bikoitzerako gaitzea helburu duen “kontsulta” batean parte hartzeko. Bigarren kontsulta honen bidez, gizarteak, alderdi guztiei –ETAri, Espainiako Gobernuari eta euskal alderdi politikoei- agindua emango lieke, epe jakin batean, indarkeriaren amaiera helburu duen prozesua abiarazi eta garatzeko batetik, eta gatazka politikoaren irtenbiderako prozesua abiarazi eta garatzeko bestetik. Jabetzen naiz, guztiz jabetzen, bigarren kontsulta mota hau ez dela juridikoki loteslea izango, baina inork ez du zalantzan jarriko nolako balio politiko, sozial eta demokratikoa izango duen.

Hauek dira urratsak eta ondorio politikoak:

Lehen Urratsa:

Espainiako Gobernuko Presidenteari Itun Politikoa eskaintzea (2008ko ekainean, Legebiltzarreko batzarraldiak amaitzean)

Legebiltzar honetan ofizialki eskaini nahi diot Espainiako Gobernuko Presidenteari Euskadiren eta Espainiaren arteko Itun Politikoa lortzeko aukera, bi oinarri izango dituen:

- *Printzipio etikoa*, indarkeriari uko eginaz, euskal gizarteak bide politiko eta demokratikoak bakarrik erabiltzeko duen konpromisoa
- *Printzipio demokratikoa*, euskal gizartearen nahia errespetatzeko, eta borondate hau ordenamendu juridikoan jaso eta nola gauzatuko den arautzekoa.

Ondoren euskal gizarteak berretsiko lukeen Itun hau izango da giltza irtenbideari atea irekiko diona. Bi konpromiso oinarri izango dituen irtenbidea:

- Indarkeriari amaiera emateko elkarrizketaren aldeko konpromisoa, 2005eko maiatzean Diputatuen Kongresuak onartu zuen ebazpenak jasotzen dituen baldintzak betetzen direnean.
- Inolako bazterkeriarik gabe, euskal alderdi politiko guztien arteko negoziazio prozesua bultzatzeko konpromisoa, epe jakin batean, akordio politikoa lortzeko. Erdietsitako ituna garatu eta juridikoki artikulatuko duen akordioa, ondoren, euskal gizarteak berrets dezan, erreferendum erabakitzailerik baten bidez.

Hortxe dago eskaintza, eta gaurtik bertatik, zabalik nire agenda. Guztiz prest nago nahi duenean Espainiako Presidentearekin elkartzeko; halaxe jakinaraziko diot nik neuk. Astia badugu. Borondate politikorik badago, badugu aukera Ituna hitzartzeko; indarkeriaren amaierarako oinarriak ezarriko dituen Ituna; bestelako harreman politikoan oinarrituko den etorkizuna ezarriko duen Ituna. Nahi badugu, borondaterik badugu, euskal gatazkaren sustraierara jo eta irtenbidea aurki dezakegu, izaera politikoa duen gatazka historikoa dela onartuaz.

Bigarren Urratsa:

2008eko ekainean Euskal Legebiltzarreko Osoko Bilkuran, Estatuarekin lortutako ituna berretsi eta baimena ematea juridikoki loteslea izango den kontsulta egiteko, gizarteak ere Ituna berronets dezan. Edo, bestela, irtenbideari atea irekitzeko gaituko gaituen kontsulta egiteko baimena ematea.

2008ko ekainean, legebiltzarraldia amaitzeko, Eusko Legebiltzarraren Ez-Ohiko Bilkurarako proposamena egingo dut, Ganbera honek bi aukeraren artean hautua egin dezan:

- Edo berretsi Espainiako presidentearekin lortutako Itun Politikoa, eta baimena eman juridikoki loteslea izango den kontsulta baten bidez Ituna euskal gizarteak berronets dezan. Kontsulta hau izango litzateke giltza, euskal alderdien arteko negoziazioari ekiteko.
- Edo, blokeo egoera gainditzeko gaituko gaituen kontsultarako baimena eman, gizarteak izan dadin, bere erabakiarekin, elkarrizketa eta negoziazio prozesu bikoitzerako agindua emango diguna: indarkeriaren behin betiko amaiera ekarriko duen prozesua batetik, eta euskal gatazkaren irtenbidea ekarriko duen prozesua, bestetik.

Nire konpromisoa, Legebiltzar honen borondatea errespetatzea da, eta horren arabera jokatzeko. Horregatik, Legebiltzar honek erdietsitako ituna berretsiko ez balu eta, ondorioz, baimenik emango ez balu Itun hori berresteko kontsultarako; edo, bestela, irtenbidea aurkitzeko gaituko gaituen kontsultarako baimena ukatuko balu, aurreratzen dizuet onartu

egingo nukeela Legebiltzarraren erabakia; hala balitz, Legebiltzarra deuseztu eta udazkenean hauteskunderako deia egingo nuke.

Hirugarren Urratsa:

2008ko urriaren 25a: lortutako Ituna berresteko Kontsulta, edo irtenbidea aurkitzeko gaituko gaituen Kontsulta.

Euskal gizarteari proposamena egiten diot, 2008ko urriaren 25ean demokratikoki bere iritzia emanaz, egin beharreko bidetari ekin, adostutako edukiak legitimo bihurtu, eta negoziazio politikorako prozesua baliozko egin dezan.

Alderdi benetan funtsezkoa da hau, egun horretan euskal gizarteak bere eskuetan izango duelako aukera eta gaitasuna lortutako ituna berresteko, edo egoera desblokeatu eta irtenbidetari atea zabaltzeko.

Lehen kasuan, eta beti ere Euskal Legebiltzarraren baimenarekin, euskal gizarteak aukera izango du lortutako Itun Politikoa berresteko, juridikoki loteslea izango den eta aldi berean Espainiako Presidenteak eta Lehendakariak deitutako duten kontsulta baten bidez. Printzipio etikoa eta printzipio demokratikoa oinarri izango lituzkeen Itun Politiko honek, euskal gatazka politikoari irtenbidea emango dion prozesua abiaraziko luke.

Bigarren kasuan, euskal gizarteak bere eskuetan izango du gaitasuna alderdi guztiei agindua emateko, horretarako gaituko dituen kontsulta baten bidez, irtenbidea aurkitzeko prozesuari ekin diezaioten. Jabetzen naiz kontsulta honek ez duela balio juridikorik izango, ez dela loteslea izango; baina balio politiko, sozial eta demokratiko osoa izango du, indarkeriaren behin betiko amaiera eta gatazka politikoaren irtenbidea ekarriko duen bidetari ekiteko. Gaitze-kontsulta hau zilegia eta demokratikoa da, gizarte honetako gizon-emakumeek parte-hartzeko eskubidea askatasun osoz balia dezaten.

Nolanahi ere, kasu honetan, euskal gizarteari galdera egingo litzaioke agindu bikoitza eman dezan:

- Lehenik, Espainiako Gobernuak eta ETAk *elkarriketa prozesuari* ekin diezaioten, indarkeria behin betiko amaitu dadin, beti ere, ETAk alde zurretik benetako borondatea erakusten badu terrorismoari uko egin eta onartzeko euskal ordezkari politikoei bakarrik dagokiela erabaki politikoak hartzea
- Bigarren, euskal alderdi politiko guztiek, inolako bazterkeriarik gabe, *negoziazio prozesuari* ekin diezaioten, epe jakin batean, normalizazio politikorako akordioa lortzeko helburuarekin. Euskal Gizarteak etorkizuna erabakitzeko duen eskubidea nola gauzatuko den eta barnean eta kanpoan nolako harreman esparrua nahi dugun ardatz izango dituen akordioa.

Argi hitz egin nahi dut hirugarren urrats honen eta izango dituen ondorio politikoen gainean ere, inork pentsa ez dezan hauteskundera begira ezkutuko intentzioren bat dudala. Publikoki esaten dut gaurtik bertatik eta Ganbera honetan, kontsultaren ondoren Legebiltzarra deuseztu eta hauteskunderako deia egingo dudala, zeinahi dela ere

kontsultaren emaitza, aldekoa edo kontrakoa. Jendaurreko konpromisoa da, kontsultaren emaitzari loturik ez dagoena.

Laugarren Urratsa:

Negoiazio Prozesua eta erabaki Erreferenduma 2010eko bigarren sei hilekoan

Guztiok, baita ETAk ere, adierazi badugu sarritan prest gaudela herriaren borondatea errespetatzeko, konpromisoa hartu beharko genuke, lehenik, gizarteari galdetzeko eta, ondoren, borondate hori onartu, errespetatu eta erantzuna emateko.

Hartara, Estatuarekin lortutako ituna berresteko kontsulta, edo, bestela, gaitzeko kontsulta egin ondoren, eta erantzuna baiezkoa bada, ondorengo urratsa hauxe izango litzateke: alderdi guztiak demokratikoki behartuak senti daitezela behar diren pausuak ematera irtenbidea aurkitzeko prozesuari ekiteko.

Alde batetik, ETA behartua egongo litzateke, gizarteak hala erabaki duelako, indarkeriari, borroka armatuari uko egiteko borondatea duela erakustera, inolako zalantzarik utzi gabe, modu sinesgarrian. Eta, horren ondorioz, Espainiako Gobernuak eta ETAk elkarrizketari ekingo liokete, indarkeriaren amaierarekin zerikusia duten auzi guztiak argitzeko.

Bestetik, euskal alderdi politiko guzti-guztiak, inor baztertu gabe, konpromisoa izango lukete negoziazio politikorako mahaia abian jartzeko, alde zurretik hitzartutako epean, Normalizazio Politikorako Akordioa lortzeko. Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitzeko duen eskubidearen gaineko Akordioa, lurraldetasunaren, lurraldeen arteko harremanen gaineko Akordioa eta, jakina, alderdiek interesgarri jotzen dituzten auzi guztien gaineko Akordioa, ondoren, erreferendum bidez gizarteak erabaki dezan.

Akordio politiko honek ahalik eta integrazio handiena lortzea izan behar du helburu, baina inori beto eskubiderik onartu gabe. Izan ere, aitor dezagun zintzoki, nekez gaindituko dugu horrelako gatazka, “guztiak bat etorri behar dutela” esanaz abiatzen bagara irtenbidearen bila; hartara, orain arteko “statu quo” horri eutsi nahi dioten sektore eta alderdiek zilegiztat izango dituztelako blokeo eta beto jarrerak.

Euskadin edozein aldaketa egiteko proposamenaren aurrean, gaur indarrean dagoen marko juridiko-politikorako eskatu zen, edo marko horri eusteko gaur ere eskatzen den baino askoz kontsentsu zabalagoa eta herriaren babes handiagoa eskatzen dute zenbait alderdik, edozein aldaketak zatiketa eragiten duelako argudiopean. Honen aurrean, ezinbestekoa da printzipio demokratikoa zorrozki errebindikatzea, hori baita funtsezko tresna gatazka politikoak konpondu eta etengabeko blokeora kondenatzen gaituen gurpil zorotik irteteko. Horrela egin da gurearen antzeko beste gatazka batzuetan, naturaltasun demokratiko osoz planteatuaz guk hemen planteatzen duguna, bai European, Europar Batasunaren babespean, baita munduko gainerako lekuetan ere.

Prozesuari amaiera emango dion Erreferendum Erabakigarria 2010eko bigarren sei hilekoan.

Prozesuaren amaieran erreferendum erabakigarri baten bidez gauzatu beharko da geure etorkizuna erabakitzeko dugun eskubidea, nahiz prozesuaren sorburua Estatuarekin

lortutako Ituna berresteko kontsulta izan, nahiz sorburua gaitze kontsulta batek emandako agindu demokratikoa izan.

Jakina da, eta esperientziak hala erakusten digu, prozesu honek zailtasunak izango dituela. Tentazioa izan dezakegu euskal gizartearen esperantza zapuztu eta “gurpil zoroan jira-biraka jarraitzeko”, azken finean zailagoa baita bakea egitea, gerra egitea baino. Zailagoa akordioak lortzea, “estatuaren arrazoen” lubakian babestea baino. Gure konpromisoa, jendaurrean hartzen duguna, eta prozesuak arrakasta izan dezan gakoetako bat, prozesuari amaiera emango dion erreferendum erabakigarriko data alde aurretik ezartzea da.

Nire iritziz, arrazoizkoa litzateke prozesua 2010. urtearen bigarren zatian amaitzea. Nahikoa denbora izango litzateke alderdi politikoen arteko negoziatziorako eta seriotasuna, konpromisoa eta epe eta edukietan irtenbideak eskatzen dizkigun gizarte nekatu eta eszeptikoari erantzuna emateko.

Hauxe da, beraz, proposatutako bidai orria

Epe jakinetan, elkarrizketari, negoziatzaioari, akordio politikoak erdiesteko aukerari eta erabakiak hartzeko aukerari atea irekiko dion bidai orria. Bere baitan berrikuntza nabarmena eta konpromiso sendoa dituen bidai orria: euskal gizartea bide-erakusle jartzea. Euskal gizarteak izango du giltza “indarkeriaren zurrumbiloan” eta “elkarrizketa politikorik ezean” erortzetik begiratzeko. Euskal gizarteari eman behar diogu hitza eta erabakia, prozesua desblokeatu, bideari ekin eta aurrera egiteko.

Ez gara herriaren borondateraren beldur izan behar. Ezin gara ETAre indarkeriaz baliatu, gizarteari erabakitzeko eskubidea ukatzeko. Ezin ditugu, halaber, epe motzeko estrategiak planteatu, alderdien interes elektoralistak bakarrik kontuan izanik. Egiazko konpromisoa hartu behar dugu, bidea erakutsi, aurrera egiteko, eta Bakea eta Normalizazio Politikoa lortzeko.

Hauxe izan da Lehendakari gisa hartutako konpromisoa, Kursalen irtenbiderako proposamena – Konponbidea- aurkeztu nuenetik, eta hauxe da nire betebeharra eta nire erantzukizuna, iraganera itzuliko gintuzkeen bide iluna, edo urtetan gurpil zoroan jira-biran ibiltzeko arriskua saihesteko.

Euskal gizarteak ez du zain jarraitu nahi. Prest dago tunel ilunetik behin betiko irteteko. Eta ziur naiz eskertuko duela, guztion artean, gai bagara irtenbidea aurkitzeko, bidai orri argi eta konprometitu batekin.

Hauxe da nire erantzukizuna, eta horregatik aurkeztu dut Legebiltzar honetan, lasaitasunez, euskal gizarteari hitza emateko Proposamen argia eta konpromiso sendoa.

Minak eta sufrimenduak luzaro iraun du, luzaroegi. Urteak daramatzagu eztabaidan nola konpondu izaera politikoa duen gatazka historiko hau.

Urteak daramatzagu euskal gizartearen borondatea errespetatzeko konpromisoa azalduaz.

Urteak daramatzagu gurpil zoroan jira-biran (zurrunbilatik irten ezinik).

Bada, heldu da garaia gurpil zoroa hautsi, zurrunbilatik irten eta aro historiko berriari atea zabaltzeko. Bakea eta Normalizazio Politikoa gure eskuetan daude, euskal gizartearen eskuetan daude. Geure buruari zor diogu eta ondorengo belaunaldiek merezi dute helburu horiek lortzea.